

# ikDAS – Makina erramintarako seinaleak jaso eta prozesatzeko plataforma

Industriak duen arazo nagusietakoa da makinetan bibrazioak azaltzea eta kontuan hartzeko moduko muga da hori produkzio-sistemen efizientziarentzat.

IK4-IDEKOk, ekoizpen-teknologietan eta makina-erremintan espezializatutako zentro teknologikoak ikDAS produktua garatu du, makinaren portaera dinamika diagnostikatu eta hobetzeko.



## 01 Zer da ikDAS

Hardwarea eta softwarea dituen plataforma eramangarria bibrazioen analisirako, ahalbidetzen duena neurtu, aztertu, diagnostikatu eta konpontzea bibrazio-arazoak dinamika birakaria duten makinetan.

Tresna zuzenduta dago bibrazioen analisisian eta seinale prozesamenduan **espezializatuta egon gabe** makinaren portaera dinamikoarekin loturiko arazoak diagnostikatu eta konpontzeko beharra duten langileei.

Ekipoak ahalbidetzen du **seinaleak kapturatzea tentsiodun sentsore desberdinen bidez**. Sentsore horiek hautatuak izan daitezke datuak eskuratzeko software baten bidez, ondoren, offline eran, seinaleak denboran zehar izandako eboluzioa bisualizatu eta dagokion analisi espektrala egin ahal izateko.





## 02 SOFTWAREAREN DESKRIBAPENA

**Erabiltzailearen interfazea** egituratuta dago elkarrikketa interaktiboen bidez, eta horrek ahalbidetzen du **erabilera arina eta erraza** izatea, ezagutza tekniko handien beharrik gabe.

ikDAS softwareak ahalbidetzen du IK4-IDEKOko adituek identifikatu dituzten lau diagnosi-arlotan jardutea sistema produktiboen efizientzia hobetzeko. Lau arlo horiek honako lau moduluekin datoz bat:




**DATUAK JASO ETA MAIZTASUN-ANALISIA:**  
Aukera ematen du seinaleak eskuratu eta grabatzeko, denbora errealean egindako frekuentzia-analisen bidez makinaren zein bere osagarri kritikoen (errodamenduak, engraneak, desorekak ...) egoera zein fabrikazio prozesuarena ezagutzeko.



**MAKINA OREKATZEA:**  
Rotorearen desoreka maila egiaztatzea, orekatze dinamikorako hiru metodo estandar aplikatzeko aukerarekin.



**MAIZTASUN-ERANTZUNAREN ANALISIA:** Sistemaren erresonantziak antzematen dituen modulua, helburu duena sistemaren malgutasun dinamikoa eta bere maiztasun naturalak ezagutzeko. Aukera ematen du sistema mekanikoaren FRFa neurtzeko. Kitzikapenaren input eta jatorri moduan mailu-kolpe bat erabiltzen da.



**MULTI-ESKURATZEAREN ANALISIA:** Multi-seinale eran datuak eskuratu eta grabatzen ditu (azelerazioa, tenperatura, errotaioa...). Iraupen luzeko probetara bideratuta maiztasun analisen adierazleak eskuratzeko.

## ¿INFORMAZIO GEHIAGO NAHI DUZU?

[www.ideko.es](http://www.ideko.es)